

## HOGUITABATGARREN ORDENANTZA FISKALA

### **LIZENTZIAREN MENPE DAUDEN JARDUEREN KONTROLA EGITEKO UDAL JARDUERARI DAGOKION TASA**

#### **I.- OINARRIA ETA IZAERA JURIDIKOA**

1. artikulua.- Konstituzioaren 133.2 eta 142. artikuluek, Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106. artikulua, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Ogasunei buruzko ekainaren 30eko 9/2005 Foru Arau Orokorrean emandako eskumenak erabiliz, Udal honek zere ezarri du: Lizentziaren menpe dauden jardueren kontrola egiteko udal jarduerari dagokion tasa. Tasa horrek Ordenantza Fiskal honetan ezarritakoari jarraituko dio.

#### **II.- ZERGA EGITATEA**

2. artikulua.- Kontrolatzeko eta egiaztatzeke udal jarduera teknikoak eta administratiboak osatzen dute tasaren zerga egitate, bai aurretik subjektu pasiboak jakinarazitako jarduera bai baldintza aitortuak hasi ondoren egindakoek, egin eta jakinarazi den edo egin nahi den jarduera hori hirigintza araudiaren, hirigintza plangintzaren eta jarduerak (horiek garatzeko derrigorrezkoa izango da bideratze hori) gauzatzeko eraikin, lokal, instalazio eta espazio libreei aplikatu beharreko udal ordenantzen xedapenekin bat datorren egiaztatzeke asmoz; baita beren borondatez eskatzen dutenentarako. Horrez gain, beste jarduera batzuen handitzeak eta gehitzeak ere kontuan hartuko dira, baldin eta jarduera berria Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren kode beraren barnean ez badago eta jardueraren kalifikazioa aldatzea ez badakar. Hori guztia egingo da, Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 84. artikulua administrazioan esku hartzeke emandako eskumenen arabera.

Udal jarduera hori subjektu pasiboak aurretik jakinaraztearen ondorioz edo, jakinarazi ez diren eta horri buruzko komunikazioak erabat babesten ez dituen jarduerak daudela egiaztatzen bada, ikuskapen jarduketaren ondorioz sor daiteke.

#### **III.- SORTZAPENA ETA ORDAINDU BEHARRA**

3. artikulua.- Zerga egitate den udal jarduera hasten denean sortarazten da tasa eta sortzen da hura ordaindu beharra. Ondorio horretarako, jardueraren hasierari buruzko aurreko komunikazio idazkia aurkezten den unean jarduera hasten dela ulertuko da, aurretiazko komunikazioen prozedurari buruzko udal ordenantzaren eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.bis artikuluan ezarritakoaren arabera.

Halaber, tasa sorraraziko da:

31.- jarduera edo instalazioa aurretiazko komunikazioen prozedurari buruzko udal ordenantzaren ezarritako aurretiazko komunikazioa aurkeztu gabe garatzen denean, edo garatutako jarduera jakinarazitakoarekin bat ez datorrenean eta Udalak ikuskapen jarduerak egiten dituenen, horien ondorioz garatutako jarduera ezagutu eta egiaztatzen dela.

3.2.- Dagoeneko martxan dagoen jarduera baten izen izapdetzen denean.

Ordaindu beharra independentea da aurretiazko komunikazioen prozeduraren eta erantzukizunpeko aitopenen pean dagoen jarduera egiten duen lokal bakoitzerako (lantegiak, tailerrak, bulegoak, dendak, biltegiak eta edozein motatako bulegoak).

#### **IV.- SUBJEKTU PASIBOA**

4. artikulua.- Zergadun gisa, tasaren subjektu pasiboak dira jarduera garatzen duten pertsona fisikoak eta juridikoak, baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikulua aipatzen dituen erakundeak ere.

## **V.- KUOTA**

5. artikulua.-

1. -Aplikatu beharreko tarifa orokorra honakoa izango da:

| LOKALEKO AZALERA               | TARIFA |
|--------------------------------|--------|
| METRO KARRATUA ETA/EDO ZATIKIA | 9,00€  |

**Honako ezaugarriok izango ditu:**

2.- Zerga kuota ezin izango da 450 €-tik beherakoa izan inoiz, hori gutxieneko kuotatzat joko dela.

3.- Zerga kuota ez da 45.000 €-tik gorakoa izango inoiz, hori gehieneko kuotatzat joko dela.

4.- Jardueren izen-aldaketak izapidetzen direnean, tarifa orokorra aplikatuko da.

## **VI.- LIKIDAZIOA**

6. artikulua.-

1.- Zergen Kudeaketa eta Ikuskaritzako Atalak tasa likidatuko du edozein unetan, aurretiazko komunikazio idazkia aurkeztu ondoren.

Likidatu beharreko zenbatekoa zehazteko, eskaeraren eta/edo komunikazioaren unean eskalako planoa aurkeztuko da, adituak egindakoa, lokalaren azalera egiaztatzeko modu gisa. Dokumentu hori ez badago, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 51.2 artikuluan xedatutako zeharkako zenbatespena aplikatuko da.

Tasa autolikidazio araubidean eskatu ahalko da.

## **VII.- ITZULTZEA**

7. artikulua.- Zerga beharra sortu ondoren, subjektu pasiboak uko egin edo atzera egiten badu, likidazio efektuak ez dira ukituko, jarduera egiaztatzeko eta/edo kontrolatzeko udal jarduketak egin eta gero.

Udalak egiaztatzeko jarduketak abiarazi baino lehen uko egin edo atzera egiten bada, zergadunari tasaren zenbatekoa itzuliko zaio, Administrazioak unera arte espedientea bideratzen sortu duen kostua kenduta.

Nolanahi ere, subjektu pasiboak beren-beregiko eskaera egin beharko du tasa itzultzeko.

## **VIII.- ZERGA ARLOKO ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK**

8. artikulua.- Zergen arloko arau-hausteen kalifikazioei dagokienez eta haiei, behar denean, ezarri beharreko zehapenei dagokienez, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Kudeaketa, Bilketa eta Ikuskaritzako Zerga Ordenantzan finkaturiko araubidea eta hura garatzen duten xedapenak aplikatuko dira.

## **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau behin betiko onetsi da. 2013ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatzaren erabakiz aldatua 2014eko urriaren 30eko osoko bilkuran.)